

# GLOBAL INNOVA- TION DAY 2025

EUSKADIKO BERRIKUNTZA-KASU  
PRAKTIKOEN  
DEIALDIA

# DEIALDIA- REN OI- NARRIAK



Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

## Zientziatik Berrikuntzara: inpaktua duen ezagutza zientifikoaren transferentziaren kasuak identifikatu eta zabaltzea

### DEIALDIAREN XEDEA

**2025. urterako kasu praktikoen** deialdia abiarazi dugu, **“Zientziatik Berrikuntzara”** izenekoa, enpresa-, gizarte- edo erakunde-arloan aplikatutako soluzio berritzaileetan erabiltzeko ezagutza zientifikoaren arrakastazko transferentziaren adibide diren kasu errealak identifikatu eta ikusgarri egiteko xedez.

2025eko azaroan **Global Innovation Day** ekimenaren hamalaugarren edizioa ospatuko da. Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentziak antolatutako erreferentziazko topaketa da, euskal berrikuntza gizarte osora helarazteko eta Euskadi lurralde berritzaile gisa kokatzeko. Global Innovation Dayren edizio honen helburua dibulgaziorako, sentsibilizaziorako eta konexiorako gune bat sortzea da, zientziatik berrikuntzarako trantsiziora bideratuta.

Zientziaren eta berrikuntzaren arteko harremana ezinbestekoa da; zientziak oinarria ematen dio ezagutzari, eta berrikuntzak ezagutza hori aplikatzen du soluzio eta hobekuntza berriak sortzeko. Zientziak fenomeno eta printzipio berriak deskubritzen ditu, eta berrikuntzak aurkikuntza horiek erabiltzen ditu teknologia, produktu edo prozesu berriak garatzeko.

**Ikerketa eta zientzia inpaktu nola eraldatzen diren adierazten duten ekimenak bilatzen ditugu, ekosistema zientifiko-teknologikoaren eta gure lurraldeko ekoizpen- eta gizarte-sektoreen arteko loturak erakutsiz.**

Ezagutzaren transferentziak hainbat bide har ditzake. Kasu batzuetan, jada eginda dagoen ikerketa zientifikoa hartzen da abiapuntu soluzio praktiko berriak sortzeko. Beste batzuetan, ordea, enpresek, erakundeek edo gizarte-kolektiboek detektatutako premiak ezagutza berria sortzea eta sistema zientifiko-teknologikoarekin lankidetzan aritzea sustatzen du.

Hori dela eta, ulertzen dugu ziklo hori bi noranzkoko eta dinamikoa dela; noranzkoak honelakoak izan daiteke:

- Zientziatik hasita: aurkikuntza, garapen experimental edo ikerketa-ildo batek berrikuntzaren bidez aplikazio praktikoa dakarrenean.
- Premiatik abiatuta: erronka erreal batek, inguruneko eragile batek identifikatua, soluzioa lortzeko ezagutza zientifikoa bilatzea edo batera sortzea dakarrenean.

Kasu bietan, ezinbestekoa da ezagutza zientifikoaren eta berrikuntza aplikatuaren arteko lotura argia egotea eta eragin soziala, ekonomikoa, ingurumenekoa edo instituzionala eragitea.

## ZEIN DIRA BILATZEN ARI GAREN KASU-MOTAK?

Ezagutza zientifiko-teknologikoaren eta berrikuntza aplikatuaren arteko lotura argi eta egiaztagarria duten esperientzia errealean bila gabiltza, prozesuaren abiapuntua edozein dela ere.

Honako hauek baloratuko dira:

- Ikerketa zientifiko edo teknologikoko proiektu, emaitza edo ildo bate-tik abiatu diren (adibidez, tesia, ikerketa aplikatua, garapen eksperimen-tala...) eta inpaktua duen berrikuntzaraino eboluzionatu duten kasuak.
- Enpresa, gizarte-erakunde edo administrazio publiko batek detektatu-tako premia jakin batetik abiatuta ezagutza zientifiko-teknologikoa sortzea edo egokitzea sustatu duten kasuak, soluzio berritzailea sort-zeko.

Kasu guztietan espero da berrikuntzak ingurune nabarmen edo erreal batean baliozkotzeko moduko heldutasun-maila lortu izana, egiazta dai-tekeen inpaktuarekin (soziala, ekonomikoa, ingurumenekoa, instituziona-la, etab.).

Orientazio gisa, lehentasuna emango zaie 8 edo gehiagoko heldutasun te-knologikoko maila (TRL) duten kasuei, hau da, ingurune operatiboetan egiaztatu eta hedatu diren eta ekoitzi eta merkaturatu diren kasuei.

Kasuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lotura izatea unibertsitateek, zentro teknologikoek, I+Gko taldeek, ikerketa-jarduera duten enpresek edo ikertzaile independenteek sortu edo aplikatutako ezagutza zientifiko-teknologikoarekin.
- Aplikazio praktiko jakina izatea, balioa sortu duen produktu, zerbitzu, prozesu edo antolamendu-gisa adierazia.
- Egiazta daitekeen berrikuntza izatea edozein arlotan: teknologia, gi-zartea, antolamendua, ingurumena edo erakundea.
- Eragileen artean benetako elkarlana egotea, batez ere sistema zientifi-ko-teknologikoaren eta enpresen, administrazio publikoen edo hiruga-rren sektoreko entitateen artean.
- Euskadin garatu izana edo euskal ingurunean zuzeneko eragina izatea. Horrez gain, lurraldetik kanpo garatutako kasuak ere aztertuko dira, baldin eta bereziki transferigarriak, eredugarriak edo inspiratzaileak badira.

Hona hemen adibide orientagarri batzuk:

- Unibertsitate batek eta enpresa batek elkarrekin zuzendutako indus-tria-tesia, produktu edo teknologia berri bat sortzea ekarri duena.
- Osasun-, hezkuntza- edo ingurumen-arloko erronka bati erantzuteko ikerketa aplikatua sustatzen duen erakunde soziala.
- Partzuergo batek Europako proiektu baten emaitzak aplikatzea, Eusk-diko testuingurura egokitutako soluzioak sortzeko.

## AURKEZTU BEHARREKO KASUEN EGITURA

- 1. Kasuaren izenburua:** izen adierazgarri, argi eta zehatza, edukia edo garatutako soluzioa irudikatzen duena.
- 2. Tartean diren erakundeak eta bete dituzten rolak:** parte hartu duten entitateen zerrenda (enpresak, unibertsitateak, zentro teknologikoak, erakundeak, etab.), prozesuan izan duten eginkizuna labur azalduz.
- 3. Testuingurua eta landu den erronka:** berrikuntza-prozesua eragin duen identifikatutako arazo, premia edo erronkaren deskribapena (soziala, ekonomikoa, teknologikoa, ingurumenekoa...). Zehaztu behar da sustapena zientziatik edo eskaritik abiatuta egin zen.
- 4. Erabilitako ezagutza zientifiko-teknologikoaren jatorria eta izaera:** aplikatutako ezagutza-motaren deskribapena (teorikoa, esperimentala, aplikatua, oinarritzko ikerketatik abiatua, doktorego-tesietakoa, patineteetakoa, etab.), baita ezagutzaren jatorriarena ere (I+Gko ildoak, proiektu zientifikoak, aurreko emaitzak, argitalpenak, etab.). Adierazi behar da ezagutza kasurako berariaz garatu den edo jada zeuden iturrietatik egiaztatu den.
- 5. Ezagutza zientifiko-teknologikoak emandako balioa:** ezagutza horrek berrikuntzaren garapenari egindako ekarpenaren azalpen zehatz eta bereizgarria:
  - Zerk egin du posible, lehenago existitzen ez zena?
  - Nola hobetu dira soluzioaren errendimendua, fidagarritasuna, eraginkortasuna edo inpaktua?
  - Zein izan da prozesuko faserik garrantzitsuena?

- 6. Berrikuntza-prozesua eta transferentzia:** erronka identifikatu denetik edo ezagutu denetik berrikuntza ezarri arte jarraitutako prozesuaren deskribapena. Eragileen arteko lankidetzak, egindako faseak (garapena, baliozkotzea, proba pilotua, hedapena) eta, bidezkoa bada, lortutako TRL maila argi adieraztea baloratuko da.
- 7. Lortutako emaitzak eta sortutako inpaktua:** kasuaren emaitza nagusiak (produktuak, zerbitzuak, ezarritako prozesuak, etab.), baita lortutako inpaktua ere:
  - Ekonomikoak (negozioa sortzea, efizientzia, eskalagarritasuna...).
  - Sozialak (bizi-kalitatea, ekitatea, osasuna, hezkuntza...).
  - Ingurumenekoak (jasangarritasuna, arintzea, zirkulartasuna...).
  - Instituzionalak edo araudizkoak (araudiak, kudeaketa-ereduak...).
- 8. Arrakasta-faktoreak eta ikasitakoa:** prozesuaren arrakasta erraztu duten elementu gakoak, baita ikasitako alderdi, gaitasunak edo erronka edo eredia erreplikatzeko gomendio nagusiak ere.
- 9. Erreplikatzeko ahalmena edo eskalagarritasuna:** kasua beste sektore, lurralde edo kolektibo batzuetan erreplikatzeko dagoen ahalmenaren balorazioa, eta zein baldintzatan egin ahalko litzatekeen. Horrez gain, adieraz daiteke proiektuak beste fase batzuetaraino eboluzionatu duen, finantzaketa gehiagorik jaso duen edo epe luzearako estrategietan integratu den.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-batzordeak honako hauek baloratuko ditu:

### Oinarrizko irizpideak (derrigorrezkoak):

- **Lotura argi eta egiaztagarria ezagutza zientifiko-teknologikoarekin:** kasua sistema zientifiko-teknologikoko eragileek (unibertsitateak, zentro teknologikoak, I+Gko taldeak, etab.) sortu edo egokitutako ezagutzan oinarrituta dagoen eta ekarpen hori ondo deskribatuta eta dokumentatuta dagoen baloratuko da.
- **Aplikazio praktikoa eta lortutako heldutasun-maila:** berrikuntzak **8koa edo handiagoa izan beharko du, hau da, eragiketa-inguruneetan egiaztatu eta zabaldu behar izan dira, bai eta ekoitzi eta merkaturatu ere** (TRL  $\geq$  8).

### Irizpide osagarriak (puntuazioa handitzen dute):

- **Ezagutza zientifiko-teknologikoak azken emaitzari emandako balioa:** ezagutza garatutako soluzioaren bideragarritasunean, bereizgarritasunean edo eraginkortasunean erabakigarria izan den baloratuko da.
- **Berrikuntza- eta originaltasun-maila:** proposatutako soluzioak bere alorrean dakarren berritasun-maila, eta modu ez-konbentzionaletan erronka konplexuei ekiteko duen gaitasuna.
- **Eragindako inpaktua:** lortutako inpaktuaren irismena eta izaera: ekonomikoa, soziala, ingurumenekoa, instituzionala... Aintzat hartuko dira inpaktuaren eskala eta denboran mantentzeko gaitasuna.
- **Eragile ugarien arteko elkarlana:** hainbat erakunde-motaren parte-hartze aktiboa, bereziki sistema zientifiko-teknologikoaren eta ekoizpen-, erakunde- edo gizarte-ehunaren arteko lankidetzaren sustatzea.
- **Transferigarritasuna eta erreplikatzeko ahalmena:** eredu, metodologia edo soluzioa beste sektore, testuinguru edo lurralde batzuetara egokitzeko dagoen aukera, aurkeztutako kasutik haragoko balioa sortuz.

## EGUTEGIA

DEIALDIAREN HASIERA

07/29

KASUAK AURKEZTEKO EPEMUGA

09/22<sup>ra</sup> arte

PROPOSAMENEN EBALUAZIOA

10/17<sup>ra</sup> arte

HAUTATUTAKO KASUAK JAKINARAZTEA

10/20

## HAUTATUTAKO KASUAK AITORTZEA

Kasurik aipagarrien kasuan:

- Azaroan egingo den 2025. urteko Global Innovation Day ekitaldian aurkeztuko dira.
- Gure komunikazio-plataformen eta sareen bidez zabalduko dira.
- Loturak sortuko dira lankidetzak, finantzaketa edo laguntza teknikoko aukerekin.

## NOLA AURKEZTU ZURE PROPOSAMENA?

- Osatu inprimakia eta bidali [kasupraktikoak@innobasque.eus](mailto:kasupraktikoak@innobasque.eus) irailaren 22a baino lehen.
- Edozein kontsulta egin nahi baduzu, jar zaitez harremanetan, honen bidez:  
**944209488**  
[ugoikuria@innobasque.eus](mailto:ugoikuria@innobasque.eus)

## ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA KONEKTATZEN DITUGU ETORKIZUNA ERALDATZEKO

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak uste du ezagutzak ahalmen handia duela soluzio errealak sortzeko. Deialdiaren helburua da zientziatik berrikuntzara doan bidea arrakastaz egin dutenei aukera emateko proiektuak ezagutarazi eta ikusgarri egitea.

**Ba al duzu esperientzia inspiratzailerik?**

**Ezagutu nahi dugu!**

## Kasuak aurkezteko txantiloia

### DEIALDIA: ZIENTZIATIK BERRIKUNTZARA

Mesedez, zure kasu praktikoa aurkezteko, bete eremu hauek:

0. Erakundearen izena eta harremanetarako datuak:

1. Kasuaren izenburua:

2. Tartean diren erakundeak eta bete dituzten rolak:

3. Testuingurua eta landutako erronka:

4. Erabilitako ezagutza zientifikoaren jatorria:

|  |
|--|
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |

5. Ezagutza zientifiko-teknologikoak emandako balioa:

|  |
|--|
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |

6. Berrikuntza-prozesua eta transferentzia:

|  |
|--|
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |

7. Lortutako emaitzak eta eragindako inpaktua:

|  |
|--|
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |

8. Arrakasta-faktoreak eta ikasitakoa:

|  |
|--|
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |

9. Erreplikatzeko ahalmena edo eskalagarritasuna:

|  |
|--|
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |

Gogoratu, bidezkoa bada, grafikoak, irudiak edo eranskinak gehitu ditzakezula.

Dokumentua .docx edo .pdf formatuan bidali beharko da [kasupraktikoak@innobasque.eus](mailto:kasupraktikoak@innobasque.eus) helbidera, irailaren 22a baino lehen.



# GLOBAL INNOVA- TION DAY 2025

EUSKADIKO BERRIKUNTZA-KASU PRAKTIKOEN DEIALDIA